

# noaua

**Txokoaldeko  
auzo elkarteak  
kudeatuko du  
Akerra berritua**

**Soinurbil Musika  
Jaialdia astelehenean  
hasiko da**



**#Martxoak8**

**Emakumeen aldarrikapenak, plazara**





# FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



*Jantzi kolorez zure etxe,  
balkoi zein lorategia!*



**URTINEA** 

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

# noaua

jarraitu gure sare sozialak



facebook



Instagram



twitter



noaua



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

*%100 bertako sagarra*



*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**

## Albistearen iruditan

# Autoak, gero eta urrutiago kaxkotik



Mikel Laboa eta Artzabal arteko bidea oinezkoentzat izango da. Enpresa eraikitzailerek martxoaren 11ra bitarte izango dute lehiaketara aurkezteko epea.

Mikel Laboa eta Artzabal arteko lotunea oinezkoentzako bidea bihur dadin, Zubiaurrenea kalearen berrurbanizazioa egin beharko da, Kontzejuzarra kaleko bi-

degurutzetik Bordaberri kalera arte. Hala nola, Mikel Laboa plaza eta Askatasuna plaza lotzen dituen Kontzejuzarra kalea ere berrurbanizatu egin beharko da.

Martxoaren 11 bitarte izango dute enpresek lehiaketara aurkezteko epea. Xehetasun guztiak usurbil.eus webgunean, "Kontratatzailearen profila" atalean.

## Laburrean

### Argazki erakusketa Artzabal

Lurdes Hueta argazkilariaren lanak Artzabal jatetxean dituzue egunotan ikusgai. Aurreko asteburuan zabaldu zuen erakusketa eta martxoaren 31ra bitarte egongo da irekita. M8 taldeak eta Usurbilgo Udalak antolatu dute erakusketa.

### 1972an jaiotako bazkaria

1972an jaiotakoak martxoaren 7an elkartuko dira, 14:30ean Urnietako Oianumen. Bertara joateko asmoa baduzu, honako kontu korrontean 40 euro sartu izen abizenak adieraziz:  
BBVA ES72 0182 0329 5102 01552922

### Martxoaren 4an, Jai Batzordearen bilera

Santixabel jaiak prestatzeko bilerak hasiak daude. Hurrengo hitzordua martxoaren 4an izango da, asteazkenarekin. Arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira Potoxoenan. Aurreko astean iragarri bezala, jaiak uztailearen 1etik 5era ospatuko dira.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Inaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!





Imanol Ubeda

## Oinezkoak nagusi

**H**erriak eta kaleak autoaren logikara lerratu ziren XX. mende erdialdean. Oinezkoa bigarren plano batera kondatuz. Fenomenoa orokorra izan zen. Gurean ere igarri daitezke autogintzak ezarritako ereduaren zantzuak. Gauzak aldatzen hasiak dira, ordea. Autoen diktadura erortze da. Esango nuke txirrinduzale elkarteak izan zirela borroka hau hasi zuten lehenak. Denbora luzez aldarrikatu dute bizimodu jasangarriago bat izateko aukera.

Talde ekologistak ere bate-

ratsu hasi ziren ohartarazten. Autoak kutsatuta bizi ginela. Ez zela sana. Jasangaitza zela zarata eta kiratsa.

Ezarritako ordenari aurre egitea baina, ez da batere erraza. Sustrai sakonak dituzte inertziek. Baita gure eguneroko jardunean ere. Txikierridiko puntu beltzari erreparatzea besterik ez dago. Duela hiru urte ezinezkoa zirudien. Gaur, bertatik igarotzen diren herritarrek seguruago dabilta. Troiako malda pareko semaforoa martxan ipini dutenetik, lasaitu ederra hartu dute hortik oinez, korrika edo bizikletan

igarotzeko ohitura dutenek. Al-biste ona. Puntu beltzen mapan, oztopo bat gutxiago. Tren-pasabidearen arriskuak ordea, hor jarraitzen du. Troian barrena Zubietatik Usurbilera (edo Usurbildik Zubietara) oinez, korrika edo bizikletan zetorrenak bi oztopo zituen lehen. Bakarra du orain. Bada zerbait.

Hala eta guztiz ere, beste elementu garrantzitsu bat falta da oraindik: bidegorria. Egunotan, Txikierrid eta Kalezar arteko bidea itxita egon da bidegorri-sarea handitzen ari direlako. Gaitzerdi. N634 errepideko arriskutik salbu, Txikierrid eta Usur-

bil arteko zatia bizikletaz osatzeko modurik izango ahal da inoiz... Auskalo, palazioetako kontuak beti mantso.

Bien bitartean, oinezkoek zorioneko izateko beste arrazoi bat dute. Aste honetan jakin dugunez, Mikel Laboa eta Artzabal arteko bidea oinezkoentzat izango da. Autoak kaxkotik gero eta urrutiago egongo dira. Udalak prozedura administratiboa martxan jarri du jada. Laster hasiko dira berrurbanizazio lanak. Egia izango da, beraz: autoen diktadura amaitze da.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

## Hitz-Aho Guraso Elkarteak "Emozioak familian" izeneko hitzaldia antolatu du

Haurrek emozioak nola bizi-tzen dituzten eta nola adierazten dituzten ulertzea ezinbestekoa da, "ondoren gurasoak helduak garen heinean, haurraren bizipenak jaso eta bideratzen laguntzeko". Olatz Berastegik eskainiko duen hitzaldian "haurraren mundura

gerturatzeko aukera izango dugu, eta guraso bezala nola gerturatzen garen hausnartuko dugu eta gure burua hobeto ezagutuz, haurrari erantzun egokiagoa emango diogu".

- Martxoak 17 asteartea.
- Arratsaldeko 17:00etan.
- Ikastola Gorrian.



Olatz Berastegik Ikastola Gorrian eskainiko du hitzaldia.

## Teknikari bat behar dute Garbitanien

Zerbitzu juridikoetarako teknikari bat kontratatu eta lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua abiatu du Garbitanien. Martxoaren 13an amaituko da izena emateko epea. Xehetasun gehiago, usurbil.eus orrialdean irakurgai.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 13. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 9.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

*Parti*  
Parti  
bazkariak EGUNERO  
afariak, ostegunetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

ETXETRESNEN  
**KONPONKETAK**  
eta **SALMENTA**  
MARKA GUZTIAK  
azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER **Usurbil**

# 17 hektareako pinudia moztuko du Foru Aldundiak Andatzan

Irasi-Agamuno inguruan dagoen 58 urteko baso bat da moztuko dena. 17 hektareako sail hori Aldundiarena da, insignis pinuz osatua. Maderas Jose Saiz SL enpresari esleitu dio mozketa egiteko lana, “eta oso litekeena da egunotan hastea lanean”.

Udaletxetik aditzera eman dutenez, lanak burutzeko bi hilabete beharko dituzte. Egurrak Txokoaldetik eta Santuenetik barrena aterako dituzte.



Egurrak Txokoaldetik eta Santuenetik barrena aterako dituzte.

## Udala berrantolatzen

Udaletxeko espazioaren diagnosiari eta administrazio elektronikoari heldu die Udalak. Langileekin batzarrrak egin dituzte egunotan, udaletxeko espazioaren antolaketaren diagnosiaz eta administrazio elektronikoaz hitz egiteko.



Konektatzea gerturatzea da, “herritarrek eta udala gerturatzea”.

### Ika-mika

## Heziketa musikala, guztion eskubidea?

Laurogeiko hamarkadan bizi izan zuen Euskal Herriak Musika Eskola gehienek sorrera. Herri musikala izanik, heziketa musikalaren aukera ahalik eta jende gehienak izateko helburuarekin jaio ziren.

Herri guztiek berea izatea nahi zuten. Profesionalak ez ziren falta, kontserbatorioetan formakuntza jasotako musikari ugari baitzeuden sasoi hartan.

Hasiera ez zen erraza izan, eta gehienek udalen babesa izan bazuten ere, batzuk titulartasun publikoa izatea lortu zuten, eta beste batzuk irabazi asmorik gabeko elkarte bezala eratu ziren.

Irakasleen titulazioak, ikasgaien baimenak, eraikuntzen metro karratuak, baliabideak... Dena Eusko Jaurlaritzaren hezkuntzaren saileko kontrolpean.

1992ean, Eusko Jaurlaritzak, musika hezkuntzarako emango

zuen diru-laguntzak arautuko zuen dekretua atera zuen. Ordutik, 2016. urtera arte deialdia bi zatitan banatzen zen:

■ %25eko udal-finantziarioa edo handiagoa duten Musika Eskolak.

■ %25eko udal-finantziarioa baino gutxiago duten Musika Eskolak.

Beraz, finantziarioari dagokionez, Musika Eskolen gehien-goak hiru iturri nagusi izango ditu: Udala, Eusko Jaurlaritza eta erabiltzaileen kuotak.

1994. urtean Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte sortu zen, Musika Eskoletan egiten zen lana bistaratu, eskolen arteko harremanak sendotu, instituzio ezberdinen aurrean ordezkaria izan, eta erakunde dinamizatzailea bihurtzeko helburuekin.

Gaur egun, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 66 Musika Eskolek osatzen dugu EHME. 42 eskola titulartasun publikoarekin eta 21 eskola “pribatu” izaerarekin

baina gutxienez %25eko udal finantziarioa dutenak, gehienak Gipuzkoakoak, eta 3 eskola pribatu irabazi asmorik gabekoak.

Bere sorreratik, Musika Eskolen finantziario europar eredu izan du helburu: Udalak %33, Gobernuak %33, erabiltzaileek %33. 2013ko otsailaren 11n, EAeko parlamentuak, Musika Eskolen finantziario europar ereduaren alde egindako legez besteko proposamena onartu zuen.

2016-17ko Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen deialdian, LILE legea aplikatu nahian, Udal titulartasuna duten Musika Eskolek, beste atal bat izan zuten.

Beraz, azkenengo diru-laguntzen deialdiek hiru eskola mota bereizten dituzte.

Titulartasun publikoa dutenek finantziario europar eredu lortzeko konpromisoa dute. Titulartasun “pribatu” duten eskolek, ordea, irabazi asmorik

gabeko elkarteak izan arren, eta % 50eko baino gehiago diru-laguntza publikoa eduki arren, finantziario europar eredu gero eta urrutiago dute.

Herriko Musika Eskola askok “pribatu” izaera juridikoa izan arren, zerbitzu publikoa eskaintzen dugu. Gure herrietan heziketa musikala eskaintzeaz gain, herriko kultur jardueretan ezinbesteko presentzia eta aportazioa egiten dugu.

Familiek, irakasleek, Udalek, esfortzu handia egiten dihardute Musika Eskolak herrietan mantentzeko, baina egoera ekonomiko larria bizi dugu, eta lehenbailehen irtenbidea eman behar zaio egoerari. Beraz, Eusko Jaurlaritzari mahai baten inguruan gaia lantzen hastea eskatzen diogu. Heziketa Musikala, guztion eskubidea delako.

**Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte (bertako kide da Zumarte Musika Eskola).**

# Akerrari buruzko proiektua martxoan definituko dute, zaharberritze lanak ahalik eta azkarren has daitezzen

**A**kerra gaztetxea auzotarren esku egongo da laster batean. Hori erabakita dago. Proiektua lizitatzea baino ez da falta. Hiritik At kooperatibak gidatu du parte-hartze prozesua eta zaharberritze lanak ere kooperatibak berak zuzenduko ditu.

Aurreko astean, udal gobernuko ordezkari bat Txokoaldeko bizilagunekin batu zen. Akerra gaztetxea zaharberritzeko proiektua martxoan itxiko dute, “lanak ahalik eta azkarren hasi eta dirulaguntzak eskatu ahal izateko”. Udaletxetik aditzera eman dutenez, udaberrian esleituko dituzte lanak.

## Auzotarren ekarpenak

Txokoaldeko udal-ekipamendua gauzatzetik gertuago dago, Hiritik At kooperatibak proiektuaren inguruko auzotarren azken ekarpenak jaso ostean.

Kooperatibako kideak pozik daude, prozesuaren bi helburuak bete direlako: batetik, udal-ekipamenduari zein erabilera eman definitu ahal izan dutelako, eta, bestetik, auzotarrak motibatu eta auzo-elkartea sortzea erabaki dutelako. “Emaizta onak dira kualitati-



Aurreko astean batzarra egin zuten Txokoalden. Auzo elkartea izango da espazio berritua kudeatuko duena.

## AKERRA BERRITUA

**“Goiko solairuan, gauza askotarako balioko duen espazio bat egitea adostu dute. Beheko solairuak gaztetxe izaera mantenduko du”**

boki, baina baita kuantitatiboki ere: hogeitaz lagunen bultzatan etorri dira saioetara, adin desberdinetakoak”, Hiritik At-ekoek nabarmendu dutenez.

## Beheko solairuan, gaztetxea

Udal-ekipamendua diseinatzeko hasi aurretik, auzoan

zein behar ikusten zituzten galdegin zieten txokoaldetarreri, gero, udal-ekipamenduari horietakoren bati erantzun ote ziezaiekeen pentsatzeko. “Hala, beheko solairuak egungo gaztetxe izaera mantentzea erabaki dute, dena gaur egungo antolaketaren arabera jarria. Goiko solairuan, berriz, gauza askotarako balioko duen espazio bat egitea adostu dute, tailerrak edo ikastaroak egiteko, sukalde txiki batekin, komun egokitua, erretiratuentzako elkargunea, haurrentzako ludoteka, eta abar”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

## Igogailu bat jarriko da kanpoko aldetik

Kanpoko aldetik, irisgarritasuna bermatze aldera, igogailu bat jarriko dute, “baita eskailera batzuk ere, egungo legeen arabera eginak”. Eta, horrez gain, egonean egoteko leku atsegina izan dadin esku hartuko dute. Batzarrean, aldaketa bat adostu zuten: behean komunik ez jartzea.

Auzo elkartea izango da espazioa kudeatuko duena: talde eragile bat izango du, egunero erabakiak euren artean hartzeko, eta gai zabalagoak direnak asanblada orokorretan erabakiko dituzte.

## Aterpe bat, Aginagako eskola atarian

Aginagako tabernaren eta Herri Eskolaren atariak aterpe bat izango du laster batean. Egitura ipini zuten aurreko astean eta argazkian erreparatu baduzue, estalkia falta du oraindik. “Eguraldiak pixka bat laguntzen duenean bukatuko dute”, jakinarazi du Usubilgo Udalak.



Origami Arkitekturak egin du aterpearen inguruko proiektua.



## Emakumeen Etxea sortzeko prozesuaren aurkezpena

**D**akizuenez Usurbilgo Udala Kalezarko Pelaiarena birgaitzen, teilatua eta fatxada konponetzen hasia da. Etorkizunean kalezartarrentzako udal ekipamendua kokatuko dute bertan, baita Emakumeen Etxea ere. Azken egitasmo honekin urrats berriak ematera doa udal gobernu taldea laister. Parte-hartze prozesu bat abiatzeko da apirilean. Xehetasun guztiak martxoaren 14an (larunbata) emango dituzte ezagutzera, eguerdiko 12:30ean Sutegiko erakusketa aretoan iragarri duten ekitaldi irekian.

Guztira, Elhuyarrek Udaleko Parekidetasun Saileko teknikari eta zinegotziarekin batera bost saio egitekoak dira. Besteak beste, Emakumeen Etxea edukiz hornituko dute; gurearen helburuak, erabiltzaileak, espazioaren antolaketa, funtzionamendua eta gehiago adostu nahi dira prozesu ho-



Kalezarko Pelaiarena berrituan aterpetuko da Emakumeen Etxea.

### EMAKUMEEN ETXEA

**Parte-hartze prozesu bat abiatzeko da apirilean. Xehetasunak martxoaren 14an emango dituzte ezagutzera, eguerdiko 12:30etik aurrera Sutegin**

rretan zehar. Etxea bera barrutik nolakoa izan erabakiko dute, azaleratuko diren beharretan oinarrituta. Gaiarekiko interesa duen edonori egongo da zuzendua prozesua, bereziki emakume norbanako zein

taldeen ordezkariari noski.

**Kalezar, etorkizunera begira**  
Eraldaketa betean da Kalezar. Ugartondon auzune berria eraikitzen ari dira. Pikaola inguruan bidegorria egiteko lanak ere martxan dira. Ondoa, beharbada hilabete honetan bertan garabiak ere adinekoren auzunea altxatzen hasiko dira. Pelaiarena eraikina ere birgaitzen ari da Udala. Bertan kokatuko dira etorkizunean Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamen-

dua. Ekipamendu honi begira, auzotarren beharrak bildu nahi zituen Udalak eta Udalaren ondoko argazkian ageri den moduan, Haur Eskolan bilera egin zuten aurreko astean.

### Ezohiko udalbatzarra, hauteskundeengatik

Apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak ospatuko dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Ohi bezala, zozketa bidez erabakiko du Udalak egun horretan egokituko diren hauteslekuetan nortzuei egokituko zaien lan egitea. Hauteslekuetako mahaia osatzeko, lehendakari, bokal eta haien ordezkoiak hautatzeko zozketa martxoaren 9an egingo dute, 18:00etarako finkatu duten ezohiko udalbatzarrean. Zozketa eginda, ohi bezala, Udaltzaingoaren bidez helduko zaie jakinarazpena hauteslekuetan egotea tokatu zaienei.

## Zubietako legealdiko lehentasunak finkatzen

Erraustegia geratzea eta neurketak sustatzea; mugikortasuna hobetzea (bidegorria, argiteria, bus zerbitzua...); kultur ekintzak, herri komunikazioa eta elkarlana bultzatuz herri bizitza aberastea; eta gazteentzat etxebizitza bermatzea. Zubietako Herri Batzarrak deituta, otsailaren 25ean Kaxkapen egin zuten legealdi berrira begirako bilera irekian, 2023ra arte bertako bizilagunek finkatu zituzten lehentasun edo erronka nagusiak dituzue aipaturikoak.

### Zubietako plana

Usurbilgo Hiria Antolatze-ko Plan Orokorren baitan, Zubietako plana garatze-



Taldeetan hausnarketak partekatzen, etorkizuneko Zubietako legealdiko lehentasunak finkatzen. Otsailaren 25erako deitu zuten saioan.

koak dira, eta horri lotuta ere lanketa bideratzeko da Herri Batzarra, EHUren Arkiteturako ikasle talde baten laguntzaz. Proiektu bezala izango dute, gai honi lotuta Zubietako buruzko datu bilketa eta ikerlana egitea eta gero, parte hartze prozesu bat

sustatzea.

### Donostiako aurrekontuak

Gogoan izan, bitan zatitua dago Zubietako legealdia. Egun, Usurbil aldeko alkateta dute bi urterako, Haritz Arrizabalaga. Donostialdeko eremukoak hartuko dio le-

kukoa, 2021ean, Jon Arroyok. Hiriburuko udal ordezkariak Zubietako Kaxkapera datoz hain zuzen, martxoaren 9an 19:00etan. 2021-22 urteetarako parte hartzean oinarrituriko aurrekontuak sustatu nahi ditu Donostiako Udalak. Horretarako bilera erronda bat egiten ari dira auzo eta herrietan. Prozesu horri buruzko xehetasunak eskainiko dituzte datorren astelehenean Kaxkapen. Herriarren proposamenak jaso, aztertu "eta ezarritako irizpideak betez gero", donostiarrek gero 2021-22 urteetako aurrekontuetarako kontuan har ditzaketan ekarpenok bozkatu ahalko dituzte.

## Martxoko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

## Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



## ARIES

Udaberria iritsiko da hilabete honetan eta zu ere San Jose loreak bezala loratuko zara. Hileko aholkua: Lorea izanagatik ez duzu zertan kolonia botila guztia soinean bota beharrik!



## CANCER

Bihotza taupaka jartzen dizun norbait ezagutuko duzu. Zerbait originala, zerbait berria egin behar duzu haren arreta lortzeko. Adibidez, Oria ibaitik alan paseo bat ematera gonbidatu dezakezu. Hileko aholkua: *Maite ditut gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkidanean...*



## LIBRA

Triste zaude oraindik ez zare-lako sagardotegira joan. Lasai, ziur gaude zure lagunek ez dutela aitzakia askorik beharko animatzeko. Hileko aholkua: *"Usurbildarrek daukate, sagardo alkate"* kanta bi ahotsetara entseatzeko hasi.



## CAPRICORNIUS

Santixabelak prestatzeko bilerak dagoeneko martxan dira. Zeren zain zaude bertan parte hartu eta proposamenak egiteko? Hileko aholkua: Ez, ez dut uste txaranga 24 orduz kontratatzea onartuko dutenik...



## TAURUS

Etzetik lanera eta lanetik etxera, hori da zure errutina. Dagoeneko aurpegia ere zimelduta daukazu! Bidaia-sorpresa bat egitea ez litzaizuke gaizki etorriko. Hileko aholkua: Belmonte oso polita egoten da garai honetan.



## LEO

Aitaren eguna gerturatzeko ari da eta dagoeneko ez dakizu zureari zer oparitu. Barruko arropa, pijama, galtzerdiak,... Oso ikusiak daude eta zerbait ikusgarria pentsatu behar duzu. Hileko aholkua: Igeldoko Montaña Suizan bidaia batek txundituta utziko du!



## SCORPIUS

*Mens sana in corpore sano* dio esamolde zaharrak. Ondo dago eliptika zure lagunak onena izatea, baina buruari ere gimnasia pixka bat eman beharko zenioke. Hileko aholkua: Kiroldegiko txartelaz gain, liburategikoa ere atera!



## AQUARIUS

Hilabete honetan alergiak ez dizu bakerik emango, beraz, prestatu itzazu mukizapi eta enparauak, begiak eta sudurra gorri-gorri izango dituzu eta. Hileko aholkua: Erriberako paseoa egiteko ez duzu garairik onena, lastima!



## GEMINI

Martxoaren 8ko egunak aukera emango dizu jende zoragarria ezagutzeko. Beraz, hasi ateratzen armairutik arropa more guztia! Hileko gomendioa: Eta gogoratu aurtengo leloa zein den: Patriarkatuari KAR, KAR, KAR!



## VIRGO

Negua atzean uzten ari gara, eta lurra esnatzen ari den bezala, naturarekiko konexioa handitu beharko zenuke. Hileko aholkua: Fruta-arbolen txertaketa nola egiten den ikastaroan izena eman, eta gutxienez zuhaitz bat besarkatu egunean behin.



## SAGITARIUS

Esaera zaharrak horrela dio: *Udaberria, odol berria*. Hormonak borborka izango dituzu eta ondorioz aztoratuta ibiliko zara. Hileko aholkua: Noizean behin hartu ezazu ezki-lore infusio bat, grinak lasaitzeko.



## PISCIS

Urte bat gehiago egingo duzu eta denbora gero eta azkarrago pasatzen dela iruditzen zaizu. Bizipoza berreskuratzeko garaia da. Hileko aholkua: Zergatik ez duzu frontoian urtebetetze festa erraldoia antolatzen?



**Kima**  
MASAJE LEKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
RPS: 28/17  
2017  
USURBIL



# NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 10, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia **18.30** / 2. deialdia **19.00**

## GAI-ZERRENDA:

- 1) 2019ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2020ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



## BAZKIDEEN TXOKOA



Martxoaren 6an Zozketatuko dugu:

**SAIZAR  
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO  
afaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

**noaua! euskararen aterpe**

# Milaka herritarrek exijitu dute Zaldibar argitu eta erraustegia geratzea

**M**ilaka lagun batu ziren bi aldarrion bueltan Larreko Mahaiak aurreko larunbatean Donostian egindako mobilizazioak. “Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!” aldarraren bueltan bat egin zuten baita euskal gehiengo sindikalak, eragile sozial eta ekologista anitzek.

## Borrokan Zaldibar argitu arte

“Zaldibar Argitu!” herri plataformako kideek hartu zuten hitza manifestazio amaieran. “Oso larria da gure herrietan gertatu dena. Beraien zaborra erori zaiagu buru gainera literalki”, salatu zuten. Desagertuak segitzen duten langileei elkartzasuna adierazi zieten, etxe ondoan duten zabortegiko gertaerak “elementu ilun gehiegi biltzen” dituela salatzearekin batera. “Sare klientelarrak, gaizki kudeatutako kontuak, ustelkeria... Beraien zaborrarekin ordea gu gara hiltzen garenak”. 35 urterako prestatutako zabortegia 10 urte pasatxoan bete zutela salatu zuten, “denetarik botata zabortegira; amiantoa, lindanoa... Eta auskalo zer dagoen hor”. Orain “gutxi batzuen harroke-



“Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!” aldarraren bueltan bat egin zuten euskal gehiengo sindikalak, eragile sozial eta ekologista anitzek.

## ZALDIBAR ARGITU

**“Gehiago axola zitzaien A8-a moztuta egotea, edo Eibar eta Realaren partida bertan behera geratzea, 50.000 pertsonen osasuna baino”**

ria, handinahai eta diru gosea guztiok ordaindu behar dugu”. Bai diru publikoarekin baita “geure bizitzarekin” ere.

Agintariak jakinaren gainean

egonda ere, gezurra esan zietela salatu zuten. Airearen eta uraren kalitatea ona zela hasieran, baina astebeterra, “bat batean leihoak ixteko, kirolak ez egiteko eta haurdun zeuden emakumei kontuz ibiltzeko”. Zaldibar Argituko esanetan, “gehiago axola zitzaien A8-a moztuta egotea, edo Eibar eta Realaren partida bertan behera geratzea, 50.000 pertsonen osasuna baino”. Lehendakariari eta Eibarko alkate izandako ingurumen sailburuari erantzukizunik haien gain ez ote duten

hartu behar galdetu zieten. Artean, herritarrek antolatuta eta borrokan segitzeko asmoa dutela adierazi zuten plataformatik, osasunaren eta bizitzaren alde, langileak aurkitu, erantzukizun politikoak mahai gaineratu eta finean, Zaldibar argitu arte. Halere gogorarazten dutenez, gai honek Euskal Herria osoari eragiten dio, “eredu bat jartzen baitu zalantzan. Erroetatik eraldatu beharrekoa”. Ohartarazi zuten, “norabide berean jarraituz gero, beraien hondakinetan itoko gaituzte”.

## “Erraustegia gelditzeko borrokan jarraituko dugu”

Zaldibar argitu eta erraustegia geratzea exijitu zuen manifestazioko deitzaile Larreko Mahaiak. Bi azpiegitura hauengatik “larrialdi ekologiko eta sozial egoeran” gaudela ohartarazi ziguten. Zaldibar zabortegiari dagokionez, bi langile baitaude desagertuak eta “oraindik ere erantzukizun eta aterabide argirik ikusi gabe jarraitzen dugu”, ondorio ekologiko latzak menderatu ezinik dabilatzala gogoraraztearekin batera.

Zubietako erraustegiari da-

gokionez kezka adierazi zuten, haren ondorio ekonomiko, ekologiko eta osasunezkoak “guk geuk pairatuko ditugula argi geratu delako”, penagarritzat jo zuten hondakinen kudeaketaren ondorioz. Erakundeei klima larrialdia izendatu eta horretan sakontzea egotzi zieten. Egoera honetan, “hondakinen kudeaketa publikoa, gardena eta kontrol zorrotzekoa”, exijitzen du Larreko Mahaiak, herritarren segurtasun, osasun eta ingurumena bermatuko duena.

Zubietako erraustegia guztiz

martxan jartzear duten honetan argi utzi nahi izan zuten, “ez diogu begirik kenduko hor ondoan eraiki diguten muntroari”. Kutsaduraren jarraipen, lan eta bizi baldintza kontrol eta ereduaren salaketa ekimenak sustatzen jarraituko dutela iragarri zuten. “Erraustegia gelditzeko borrokan jarraituko dugu”, borroka hau osasunaren, ingurumenaren, justizia sozialaren eta demokraziaren aldekoa dela gogorarazita.

■ Atxikimenduak: Errausketaren Aurkako Mugimendua;

Greenpeace; GuraSOS; Ekologistak Martxan; Eguzki; ELA; LAB; CCOO; STEILAS; ESK; HIRU; Sortu; Zaldunborda bizirik; Güeñes Bizia; Bizi; Ernai; Ikasle sindikatua; Extinction Rebellion; Haritzalde; EHNE; Fridays For Future; Naturkom; Etxalde; EHBildu; Alternatiba; Elkarrekin Podemos; Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT); Satorralaia; OlatuKoop; Urtarrilak 25, gure arnasaren alde; Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta.





“Hondakinen kudeaketa publikoa, gardena eta kontrol zorrotzekoa” exijitzen du Larreko Mahaiak, Herritarron segurtasun, osasun eta ingurumena bermatuko duena.

## Ernai gazte antolakundea: “Ez dugu onartzen gure lurrarekin eta osasunarekin jolastea”

“Ez dugu onartzen ustelkeriarik, ez dugu onartzen gure lurrarekin eta osasunarekin jolastea, ez dugu onartzen zuen poltsikoak betetzeko proiektu txikitzaileak eraikitzea. Ustelen legea errautsa eta kea besterik ez delako, gu bizitzak erdigunean jartzera gatoz. Zaldibar argitu eta erraustegia gelditu!”, exijitu zuen Ernai gazte antolakundeak otsailaren 27rako deitua zuen mobilizazio egunean. Eguerdian, Foru Aldundiaren atarian elkarretaratzea egin zuten, iluntzean



Otsailaren 27an Foru Aldundiaren atarian elkarretaratzea egin zuten Ernaikoek; iluntzean manifestazioa Lasarte-Orian.

manifestazioa Lasarten. Zaldibarko zabortegiaren eta

Zubietako erraustegiak hondakinen kudeaketa negarga-

rriaren erakusle direla salatu zuten. EAJ eta PSE jo zituzten “gure lurrean gertatzen ari den guztiaren” erantzuletzat. “Gezurretan oinarritutako erantzunak eman eta herritarrak engainatu nahian dabilta” gazte antolakundearen esanetan. Larrialdi klimatikoan garelako gogorazita, agente politiko eta botere faktikoen kapitalismo berdearen eta “merkatua eta interes pribatuak lehenesten dituen ereduaren aurrean, bizitzaren aldeko apustua egingen dugu”, berretsi zuten.

# Iazko Martxoaren 8ko planto historikoari segida emateko deia

**E**makumeak goizean goizetik kalean, plaza hartuta, elkarrekin, elkar ezagutzen, hausnartzen, mobilizatzen... Ahaztezina izan zen iazko Martxoaren 8a Usurbilen. Planto historikoa egin zuten emakumeek, egun horretarako deitua zegoen greba feministan. Aurrekaririk gabeko irudiak ikusi ziren. Emakumeek hartu zituzten herriko kaleak, hitza eta erabakia, manifestazio historiko batek herria zeharkatu zuen...

“Ikaragarriko ezustekoa”, hala deskribatu digute iazko Emakumeen Egunean Usurbilen bizi izandakoa, aurtengo edizioko azken prestaketa lanetan buru-belarri murgilduak diren “M8 egunero da” taldeko kideek. Oroitzen dute nola goizeko 8:00etarako kalean ziren prestaketa lanekin, euripean. “Denok urduri, ez genekielako 10 emakume edo 200 etorriko ziren. Zalantza asko genituen. Antolaketa lana, benetan zer gertatuko zen jakin gabe bideratu genuen”. Baina bapatean “emakumeak etxetik jaisten zi-



Usurbilen, “M8 egunero da” taldea asteartero biltzen aritu da Potxoenean urtarrila amaieraz geroztik, aurtengo egitaraua osatzeko.

## M8 EGUNERO DA TALDEA

**Iazkoa “Usurbilen ikusi den manifestazio handienetarikoa” izan zela oroitzen dute**

hoazen etenik gabe, frontoia betetzen”. Eta bai, “helburua betetzen, horraino ailegatuko ginela jakin gabe”.

Egun hartako une bat baino gehiago erretratatu zituen Ar-

tzabalen ikusgai duzuen Lurdes Hueta argazkilariaren erakusketak. Aurtengorako girotzeko balio izatea nahi dute, “ikusteko iaz nola bat egin zuen herriak greba feministarekin. Oso irudi ederra geratu zen denon memorian”. Bai goizean antolatuta zuten hausnarketa saioan, eta eguerdiko mobilizazio zaratsuan ere, “Usurbilen ikusi den manifestazio handienetarikoa” izan zela oroitzen dute.

Iazkoa bistatik galdu gabe,

eta izan zuen harrera ikusita, ildo berari eustea erabaki dute aurtengoan. Dakizuenek, Euskal Herriko Mugimendu Feministak ez du greba feminista deitu oraingoan, baina “borroka feminista beharrezkoa da oraindik” gogorarazi dute. Lekuan lekuko eragileek ekimen anitz antolatuko dituzte. Usurbilen, “M8 egunero da” taldea asteartero biltzen aritu da Potxoenean urtarrila amaieraz geroztik, egitaraua osatzeko.

## Elkarrekin egon eta elkar ezagutzeko gonbita

Parte hartzeko gonbita luzatzen diete emakumeei. “Iaz hasitakoa ez dadila eten eta segida eman diezaiogun. Animatu eta kalera atera!”. Herriko kale eta plazak hartzera gonbidatzen dute, goizetik, baina baita “eseri, partekatu, elkarrekin egon, elkar ezagutzera”.

Frontoian biltzeko hitzordua finkatu dute 10:00etan, “emakumeei arduratzen dizkiguten” gai desberdinez taldeetan hausnartzera. “Emakumea bizitza honetan non dagoen kokatua, bizi duen prekarie-

tatea, gauetan gertatzen denaz...”, hausnartu zuten iaz. Antzeko kezak zituzten guztiek. “Adin, pentsaera, bizipen desberdinetako emakumeak bildu ginen. Oso interesgarria izan zen halere, denoi gai berdinek ukitzen gaituztela ikustea”.

Hainbat horma haustea ekarri zuela nabarmendu digute. Bai ekimenak antolatzerakoan, eta Martxoaren 8an bertan. “Elkar ezagutzen ez genuen emakume asko bildu ginen. Elkarrekin eserita, lotsak alboratuta. Partekatze

lan handia izan zen”. Frontoiko iazko partekatze saioaren amaierarako, “denak harrapatuak utzi zituen energia sortu zen. Formularekin asmatu zen”. Oso baliagarria izan zen, “emakume askorentzat norbera burua kokatzeko, eztabaida irekitzeko”. Nabarmendu nahi dute, askok nola greba egiteko ausardia handia erakutsi zuten.

Gogoan izan, emakumeen lan, kontsumo edota zaintza greba eguna izan zela iazko Martxoaren 8a. Gizonezkoei egin zitzaizen ardurok euren

gain hartzeko deia. “Berria zen. Garrantzitsua izan zen gizonezkoei azaltzea hau denok irabazteko zela. Guk orain atera beharko genuela kalera, baina horretarako beraiek hainbat ardura hartu behar zituztela eremu anitzetan”. Mundu mailako greba feministari esker, aipatzen dutenez, “gizonezko askori begiak ireki zitzaizkien”. Argi dago halako prozesu bat ezin dela egun batetik bestera jorratu, baina “bidea ireki da” elkarrizketatuen esanetan, aurreiritzi asko apurtzearekin batera.



# Iazko arrakasta errepikatzen

Iazko formatuaren arrakasta ikusita esperientzia errepikatzea erabaki dute aurten. Emakunde Martxoaren 8rako argitara emandako karteletan “katerik gabe katean. Ezinbesteko katebegia gara aurrera egiten jarraitzeko” aldarria baliatuko dute.

Bertan katean elkarri helduta ageri dira, gaztea, heldua eta migrantea den emakume bana. “Mezu asko zeuden aldi berean; pentsatu genuen irudi hori hartu eta hausnarketarako hiru gai multzo proposatzea”. Batetik, “nahi dudana izango naiz eta ez besteek nahi dutena”. Neska gazteen gaiak txertatuko dituzte bertan; jasaten duten kanpoko epaiketa etengabea edo kanpo presioa esaterako.

Mugimendu feminista antolatua egotearen beharrez ere ariko dira eta emakume migranteen egoera ekarri nahi dute plazara, jakinik, migrante askok ezingo dutela bertan egon. “Gai honi serioski heldu behar diogu”, nabarmendu di-



“M8 egunero da” taldeak iragarri duenez, manifestazio zaratatsua egingo dute igandean eguerdi partean.

## MIGRANTEAK, ERDIGUNERA

**“Ziurrenik igandean ordutegiz kanpo lanean ariko dira, etxean diru hori behar dutelako”**

gute “M8 egunero da” taldeko kideek. Igande honetan ere ikusiko da; “migranterik ez da izango gure taldeetan eta hori ere agerian jarri behar da. Guk haietaz hitz egingo dugu baina lehen pertsonan haien errealitatea nork azalduko digu?”,

galdetzen dute aipatu taldetik. “Ziurrenik igandean ordutegiz kanpo lanean ariko dira, etxean diru hori behar dutelako”.

Egoera zehatzak planteatuko dituzte, hausnarketa abiatzeko. Gero manifestazio zaratatsua egingo dute, bazkaria frontoian, eta Usurbilgo kafe tertulia talde feministako neska gazteen emanaldia izango da. “Baten bat oholtza gainera igo eta zerbait inprobisatzera animatzen bada, aurrera”. Eguna borobiltzeko, eskualdeko mobilizazioetara batera joateko deia egingo dute.

## Martxoaren 8a, egitaraua

### Otsailak 28-martxoak 31

■ Lurdes Huetaren argazki erakusketa Artzabal jatetxean.

### Martxoak 6, ostirala

■ 18:30 Emakumeen inguruko “Dantzipuinak” emanaldia Sutegin, Ixabel Agirrerasobe kontalariarekin eta Sebastopol dantza eskolako kideekin.

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabal jatetxean, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Oihana Bartrarekin. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Txartelak: 18 eurotan salgai Artzabal jatetxean.

### Martxoak 8, igandea

■ 10:00 Frontoian bilduko gara elkartu eta partekatzeko.

■ 13:00 Manifestazio zaratatsua frontoitik. Ekarri soinua atera-

tzeko txilibituak, kazerolak...

■ Ondoren, tupper/kazuela bazkaria frontoian. Ekarri etxetik bazkaria!

■ Bazkaloste girotua eta Kafe Tertuliaren showa.

■ 18:00 Eskualdeko manifestazioan izango gara guztiok elkarrekin. Mobilizazioak besteak beste, Hernanin eta Donostian (Bulebarretik).

### Martxoak 11, asteazkena

■ 19:00 Uxue Alberdiren “Jenisjoplin” eleberriaren inguruko euskarazko irakurketa-solasaldia ikuspegi feministatik Sutegi udal liburutegian, Kattalin Miner idazle eta kazetariarekin. Liburuaren aleak aurrez eskuragarri liburutegian.

### Martxoak 13, ostirala

■ 18:30 Berriaren Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketako irabazle Maider Usabiagaren “Bidaia intimo eta gogoangarria Alpeetan barna” solasaldia Sutegi udal liburutegian.

### Martxoak 28, larunbata

■ 9:00-14:00 (goizekoa betetzen bada 15:00-20:00 artean bigarren saioa) “Jada maitasunagatik sufritzen ez duten emakumeak: autoestimua eta autozaintza feminista” tailerra Coral Herrerarekin Potxoenean (erdaraz). Izen ematea doan, bideotatik: [parekidetasuna1@usurbil.eus/](mailto:parekidetasuna1@usurbil.eus/) 943 377 110.

Antolatzaileak: “M8 egunero da” taldea eta Usurbilgo Udala.

## Politika feministen aldeko konpromisoa berretsi du Udalak

Konpromiso hau jasotzen duen Emakumeen Egunari begirako udal adierazpena onartu zuen udalbatzak aho batez otsailaren 27an egin zuten osoko bilkuran. Adierazpeneko bi puntuetako lehenak hala dio. Udalak erabaki duela, “emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz”. Hiru neurri hartzea aurreikusten dute: udal aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzea, udal konpromisoen bideragarritasuna bermatuz; udalerriko zaintzen errealitatea aztertzea genero ikuspegitik, eta errealitate hau hobetzeko neurriak abiaraztea; azkenik, ahalduz ikuspegi feministatik “Jabekuntza Eskolak, Emakumeen Etxeak eta beste espazio autogestionatuak bultzatu edo indartzea”.

## Adierazpenak subiranotasun feminista aldarrikatzen du

Bestetik, jardueretan emakume zein kolektibo feministei parte hartze bideak irekitzea sustatu nahi da, haien iritzia kontuan izanda. Erabakiak tokian bertan hartuta; adierazpenak subiranotasun feminista aldarrikatzen du alegia, “emakume guztien askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko”.



Udalbatzak udal adierazpena onartu zuen otsailaren 27an aho batez.

# 100 urte bete ditu Usurbilen, elizako altxor “ezkutu” bezain ospetsuak

**B**egi bistan egon ez eta guztiok ezagutuko ez dugun arren, “kalkula ezineko altxorra” du Salvatore Elizak; 1920an Usurbila ekarri zutenetik gure artean 100 urte egin dituen organoa.

Esteban Elizondo Iriarte organo-jotzaileak Usurbilgo instrumentu honi buruz eginiko azterlanak oroitzen duenez, XVI. mendekoak dira Usurbilgo elizak musika instrumentu hau zuela dioten lehen berriak. Orduetik organo ezberdinak izan ditu mendez mendez. Baina itxuraz, bat izan da ibilbide oparoena izan duena: egungoa.

Albert l'Espée baroiaren eskariz eraikitako organoa da Salvatore Elizakoa. Organoa zale amorratua omen zen; “Frantzian zituen hainbat bizilekuetan gutxienez sei organo izan zituen”, dio Elizondok. Haietako bat Bidarteko Ilbarritz gazteluan, 1898an, Aristide Cavaillé-Coll organo-egileak jarritakoa. 1902-03 aldera atera zuten ordea bertatik, “Fran-



1920an Usurbila ekarri zutenetik 100 urte egin ditu organoak gure artean. Joan Luis Atxegak adierazi digunez, 20 bat lagun etortzen dira atzerritik urtero Salvatore Elizako organoa ezagutzera.

## USURBILGO ORGANO

**Albert l'Espée baroiaren eskariz eraikitakoa da Salvatore Elizako organoa**

tziako musika-tresna bikainenetakoa” zena.

Handik urte gutxira, 1907an Charles Mutini beste organo handi bat eraikitzea eskatu zion, “melomanoa eta bitxia”

zen baroiak. Mutin ez zen edonor, garai hartan, 15 bat urteko tartean, 150 areto-organoa eraiki zituen Frantziako aristokraziaren edota goi-burgesiaren etxeetarako. Baina denak Ilbarritzeko gaztelukoa baino askoz txikiagoak, organo hau eraiki zuenean, bere “ibilbide artistikoan une gorentzat jotzen den garaikoa da, hala nola Neullyko edo Moskuko Kontserbatorio Inperialeko organoak egin zituenekoa”.

Ilbarritzekoa “musika-tresna oso berezia zen, baroiaren eta haren gonbidatuen gustu musikalak asetzeko sortua”. Bere ezaugarriei dagokienez, “nabarmentzekoak dira bai teklatuaren ezohiko hedadura (esku-teklatuetan 64 nota eta pedalean 35), bai doitu daitezkeen bost konbinazio izatea. Iberiar penintsulan ez da halako hedadura duen beste teklaturik, eta agian Europan ere ez. Doitu daitezkeen bost konbinazioei dagokienez, ezaugarri hori duten beste bi organo baino ez daude, Frantzian”.

Agiri ezberdinek diotenaren arabera, kontzertu bikainak antolatzen zituzten. “Frantziako goi-klaseko pertsona ospetsuak eta Frantzia osotik etorritako organo-jole entzutetsuak bildu omen ziren emanaldiotara”. Tartean, Usurbilgo Organoren Lagunak taldeko kide Joan Luis Atxegak NOAUA!ri adierazi dionez, “ustez Maurice Ravel konposatzaile ezaguna organo hori jotzen agertzen den argazkia dugu”.

## Usurbilerako bidea

Organoa hark kilometro dezenteko bidaia egingo zuen gerora. 1912an l'Espée baroiak Ilbarritzko gaztelua saldu zion Bastide delako mediku aberats bati. 1920an gunea ospitalea zela, organoa bertan zokoratua zutenean, zati handi bat Usurbilgo elizak erosi zuen. Garai hartan Guillermo Arana zen erretoreak Bastide doktoareari erosi zion, 27.000 pezetaren truke. “Erosleak bere gain hartzen du hura desmuntatzea eta horren gastua”. Gastuok Ambrosio Zatarain usurbildarrak hain zuzen. Izen bereko bere semeak Argia sortzen diruz lagundu zuen.

Hiru zati zituen organoak, bat doktoarek berarentzat hartu zuen. Gerora Belloceko benediktar monjegana joan zen. Haiak 1966an saldu zuten eta haren arrastoa galdu zen. Beste biak Usurbilgo Elizak erosi eta ekarri ziren. Non kokatu, ika-mika eragin zuen gai horrek. Apaizak egun dagoen goiko korua egokituta bertan kokatzea nahi zuen. Zatarainek behekoan. “Liskar handia sortu omen zen”, Atxegak oroitarazi digunez, organoa Usurbila ekartzea arriskuan jartzeraino. Azkenean ados jarri eta goiko abesbatzan kokatzea erabaki zu-

ten, egun duen kokagunean.

Usurbila ekartzeko, lan prozesu konplexu askoa osatu zuten; “guztiz desmuntatu eta guztiz berreraiki zen”. Fernand Prince organogile frantziar entzutetsua arduratu zen lan hauetaz.

### Nazioartean entzutetsua

Munduko hainbat bisitariren arreta bereganatu du Usurbilgo organoak. “Harrituta geratzen dira nola egon daitezkeen halako organo bat hemen”. Musika eskoletako ikasleak izaten dira askotan, nazioartean ezagunak diren organojoleak... “Japoniarrak, finlandiarrak,

ipar amerikarrak, frantziarrak...”. Munduko txoko anitzetatik etorri dira Usurbila, organoa ezagutu eta jotzera. “Duela 8 bat urte, alemaniar bat izan zen eta berak bere etxean organoa eraikitzeko organogile bat hartu eta hona etorri zen bi erregistro kopia eta tuboak nola eginak zeuden ikustera”, azaldu digu Atxegak. Hainbat eskaera jaso ohi dituzte organoa jotzeko.

Usurbilez gain, Gipuzkoa oso aberatsa da organoari dagokienez. Organoa asko dituzte, “kalitate oso onekoak”. erakundeek ondare hau zaintzeko eginiko apustuari esker.



# Nabarmen hobetua izan zen 2007an

100 urte bete ditu organoak Usurbilen, baina bizitza luzeagoa du; gogoan izan, 1907an eraikitakoa da. 100. urtemugan, 2007an zaharberritu zuen Denis Lacorre organogileak.

Ordurako originala izateari utzi zion, aurreko hamarkadetan hainbat moldaketa jasan zituelako. Soinuaren ezaugarri hainbat aldaketa egin zitzaizkien mende horretan, elementu tekniko batzuk higatuak zituen, tutuetan zikinkeria pilatua... Horregatik, birgaitze lanekin konpondu eta “ahal zen neurrian lehengoratu” nahi izan zuten. Baita osatu ere. Izatez hiru teklatu baitzituen, baina Usurbila birekin etorri zen. “Hirugarrengo hori osatzea” izan zen bideratu zuten beste lanetako bat. Horrekin batera, “kontsola jotzen den lekuari buelta eman zioten” eta horri esker, “organojoleak musika zuzenean entzuten du”. Lehen soinua gainetik igarotzen zitzaion.

Birgaitze lanak organoaren ospea handitu du. “Organoa aberastu egin da; oro har, 2000. urtean zituen baino hamasei joko gehiago ditu”. 10 erregistro gehiago, 900 tutu berri ge-



2007ko birgaitze lanak Usurbilgo organoaren ospea handitu du.

## ESTEBAN ELIZONDO

**“Euskal Herrian soinu-aukerarik handiena duen instrumentu erromantikoa da, eta espainiar estatuko bigarrena”**

hiago... “organoaren estiloa errespetatuz egin eta harmonizatu direnak”. Tutuok Atxegaren esanetan, “bakoitzak bere belarri, hortzak, ezpainak... ditu. Tutu bakoitza pertsona baten imitazioa da”.

Esteban Elizondoren azterlanak jasotzen duenez, berri-

tze lan hauen ostean, “Euskal Herri osoko soinu-aukerarik handiena duen instrumentu erromantikoa da Usurbilgo organoa, eta espainiar estatuko bigarrena”. Dituenez berezitasun batzuetan erreparatuta gainera, nazioartean ez du pareko instrumentu erromantikorik. “Zenbait pieza halako organoetan bakarrik jo daitezke, beste organoetarako moldatu beharrak daude”, Atxegaren esanetan.

## Biziraupena, erabileraren baitan

“Ondo eraikitako organoak bizi osorako izaten dira”, Atxega-

ren esanetan. Usurbilgoak ere biziraupen luzea izan dezake, baldin eta erabiltzen segitzen bada. “Liturgikoki probetxua ateratzen zaio astero” egun, baina biziraupena zaildu dezake erabilera gabeziak; “organo barentzat okerrera ez erabiltzea litzateke. Horrek zaharberritu beharra ekarriko luke”.

Urte guztietan Elizako ekitaldiez gain (ezkontzak, hiletak, mezak...), Donostiako Musika Hamabostaldiaren bueltan bi kontzertuetarako baliatzen da, bizpahiru saio urtean. Baina Atxegak berri eman duenez, “10-12 eskaini daitezke urtean zehar”.

## Soinurbilen omenaldia egingo zaio organoari

Zumartek martxoaren 9tik 15era antolatutako duen Soinurbil musika astea abiatzeko, organoa ezagutzeko bi bisita gidatu antolatuta dituzte. “Lehenbizi organoa aurkezten da historikoki. Aurkezpenaren ostean, organoa jo, entzun eta barrutik ikusteko aukera dago”, Atxegaren esanetan.

Hilaren 9an izango dira bi bisita gidatuak, 18:00etan eta 19:00etan. Bi egun beranduegoko “100 urte organoa Usur-

bilan” omenaldi ekitaldia, martxoaren 11n, 19:00etan, Salvatore elizan. Organoak bidelagun izango ditu, herriko txistulari taldea, Irri eta Zumarte abesbatzak. “100 urte ospatuz, herrian zer dugun aditzera eman nahi dugu. Kanpoko bisitariak bai, baina batez ere organoa herritarrek ezagutzea”. Egitarau honen bueltan:

- “Agur Jaunak”: txistulari taldea eta organoa.
- “Salvatoreko ermitan”: Arantzazu Aranburu bertsola-

ria eta organoa.

- “Preludioa estilo klasikoan”: Lontxo Oiartzabal organista.
- “Euskal suitea”: Salvatore Arruti Aranburu txistularia eta organoa.
- “Gizadia egarri da”: Irri abesbatza eta organoa.
- “Mirabeen abesbatza”: Irri abesbatza eta organoa.
- “Iratzarri, oihi egiten digu ahotsak”: organoa.
- “Iturri maitagarria”: Zumarte abesbatza eta organoa.
- “Ave Maria”: Zumarte abes-

batza.

- “Inguruko Dantza”: Usurbilgo Txistulari Taldea.
- “Txakona Fa minorrean”: organoa.
- “Biziaren kanta”: Irri eta Zumarte abesbatzak, txistulariak eta organoa.
- Irri abesbatzaren zuzendaria: Ramon Udabe.
- Zumarte abesbatzaren zuzendaria: Antoni Jorquera.
- Organista: Joan Luis Atxegak.
- Laguntzailea: Salvatore Parrokia.

# Astelehenean hasiko da XVI. Soinurbil Musika Astea

Zumarte Musika Eskolak antolaturiko zikloa abiatzar da. Aurtengo hitzorduen artean, Salbatore Elizako organoa Usurbila heldu zeneko mendeurrena ospatuko da. Emanaldi berezia prestatu dute propio. Kontzertu gehiago ere egingo dira. Ekitaldi guztien xehetasunak hemen dituzue:

■ Martxoak 9, 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salbatore Elizan.

■ Martxoak 11, 19:00 "100 urte organoa Usurbilen" emanaldia Salbatore Elizan: organoa, txistua, Irriu eta Zumarte Abesbatzak.

■ Martxoak 12, 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa



Illunbe orkestra sinfonikoa Salbatore Elizan arituko da martxoaren 14an. Argazkia: oarsoaldea.hitza.eus

Sutegiko auditorioan.

■ Martxoak 13, 19:30 "Broken Brothers Brass Band" taldearen emanaldia kalean.

■ Martxoak 14, 11:30 "Trakamatraka" emanaldia Artzabalgo plazan.

18:30 Illunbe Orkestra Sinfoni-

koa Salbatore Elizan.

■ Martxoak 15, 12:00 Sakanako Haize Berriak musika bandarekin kalejira. 13:00ean kontzertua frontoian.

■ Ekainak 3, 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa Altsasuko Iortia Kulturgunean.

## Berri Txarrak-en Maravillas abestia egokitu duen taldea

Broken Brothers Brass Band taldea 2006an sortu zen Iruñean. New Orleans-eko taldeen kutsua du, eta askotariko estiloak lantzen dituzte: funk, gospel edota jazz modernoa. Hainbat disko plazaratu dituzte eta duela gutxi albiste izan dira Berri Txarrak taldearen 'Maravillas' kanta bertsionatu dutelako.

Martxoaren 13an ostirala, kalejiran ibiliko dira Usurbilen barrena.



Broken Brothers Brass Band eta Gorka Urbizu, estudioan.

MARTXOAK 15, IGANDEA

# Laburbira

Euskarazko film laburren XVII. zirkuitua - 2020

MARTXOAK 15, 18:00 SUTEGIN



**GAU BELTZA**  
Euskaltzalen Topagunea



**URAK DAKARRENA**  
Marilyn taldea



**ANTI**  
Josu Martinez



**TIGRE BAT**  
Amaia San Sebastián



**PIL PIL**  
Kristina Zorita



**MAMARRO**  
Ibon Ica Totarika



**KATEAK**  
Yolanda Mazkieran



**JAUZI ETA PRIXT**  
Maitane Eyheramotz



**HARRIA HERRIA**  
Dimegaz Kultur Elkarte



NOGUA





Alazne Arruti Bengoetxea

## Eguneroko uzta

**U**rtero legez, gainean dugu martxoaren 8a. Agian jasoko dugu zorion mezurik, emakume jaio (egin) izanaren ohorez, gure izatea goraiatzeko eguna delakoan. Edo akaso, aldarrikapen eta ahalduntze betean, paternalismo zapozko keinuak soinetik kendu nahian arituko gara egunak berea egin arte. Dena dela, horrek guztiak ez ditu azken urteetan mugimendu feministaren uholdeak busti dituenak lehortuko, ez horixe.

Duela gutxi sarean harra-patutako esaldi batek honela zioen: "Gu eta gure artea, ez gara martxoan bakarrik existitzen. Urte osoan existitzen gara. Ez gara sasoiko fruituak. Eta gauza bikainak egiten ditugu". Eta halaxe da. Nahiz eta guretzat martxoak eta batez ere egun horrexek balio eta karga emozional handia izan, ez da oraindik egiteke dugun bidearen erakusle bat besterik. Oraindik borrokatzeko dugunaren isla. Harrigarria da zeharkatzen gaituen sistema honen nolokotasunaz jabetzea zenbat kosta daitekeen. Hala ere, ez nuke betiko diskurtsoan erori nahi. Aukeran nahiago, azkenaldian emakumeon ahalduntzearen alde sortu eta zorionez, zipriztintzen gaituzten ekimenen inguruan jardun. Eguneroko uzta emankor honen batera, ikasten dihardu-



"Itxi begiak eta egin kasu barrenei. Hemen gaude, eta elkarren eskutik goaz aurrera. Sentitu, pentsatu eta ekin!"

### ALAZNE ARRUTI

**"Nahiz eta guretzat martxoak eta batez ere egun horrexek balio eta karga emozional handia izan, ez da oraindik egiteke dugun bidearen erakusle bat besterik"**

gunaz aritu.

Niri dagokidanez, azkenaldian Orioko Ahalduntze Eskolaren eskutik edan dut batez ere. Herriko emakumeen artean egunerokotasunean jasandako bortizkeria eta hutsuneak identifikatzeko helburuaz, diagnosi sakon bat gauzatu zuten iaz. Galdetegian, adin eta jatorri anitzeko partaidetza lortu zuten, eta herriko hainbat talde eragileekin zuzeneko saioak ere burutu zituzten. Eta emaitza hauen inguruko lanketa bat

egin ostean, behar hauei erantzungo zien Ahalduntze Eskola diseinatzeari ekiteaz batera, emaitzok bilera ireki batean aurkeztu zituzten.

Hurbildu ginenon artean, aitortu beharra daukat nire harridurarako, gazteenetariokoak ni eta alboan nuen kuadrilako kidea ginela. Galdetegian, nerabe eta gazte askok parte hartu izanagatik, nabaria zen emakume helduagoen partaidetza datu eta emaitzetan. Errealitate ezberdinak plazaratu zituzten arren, guztiak zuten puntu amankomunen bat. Parte hartzaileak epaituak eta zenbaitetan baztertuak sentitzen ziren, bai adinagatik, sexu orientazioagatik, bizi eredu edo hautuengatik, hizkuntzagatik... eta presio horiek apurtzeko tresnak bereganatzeko premia sentitzen zuten.

Horri erantzunez, Ahalduntze Eskolak eskaini litzakeen jardunaldi edo saioen inguruko

proposamenak batu zituzten. Zenbait alargunek, etxeko konponketen inguruko formakuntza jaso nahi zutelazioten. Baita gaztetxe inguruko neska gazteek ere. Auzolanean jarduteko gogoz, behin baino gehiagotan eta zenbaitetan norbere erabakiz, bazterrak txukundu eta garbitzera mugatu izan direla identifikatu zutelako. Baina aukera guztien gainean gailendu zena, emozioen kudeaketaren inguruko lanketa izan zela zioten. Eta hain zuzen, otsailaren 15ean burutu genuen saio zinez interesgarri huraxe.

Gustura azalduko nuke 4 ordu horietan bizi izandako guztia, baina ezin kabitu liteke hemen. Hala ere, ondorio nagusi bat azpimarratu nezake. Geroz eta gizarte indibidualizatu batean bizitzearen ondorioz, emozioak taldean plazaratu eta lantzeko zailtasunak geroz eta handiagoak direla. Eta horrenbestez, gune seguru eta afektibo berriak sortzeko inoiz baino behar handiagoa dugula. Baina saioaren amaieran garbi geratu zen, ez dagoela gainditu ezin den oztoporik. Beraz, larunbat hartan bezalaxe, bersarkada erraldoi hartan sortutako goxotasunaz amaitu nahi nuke gaurko zutabea. Itxi begiak eta egin kasu barrenei. Hemen gaude, eta elkarren eskutik goaz aurrera. Sentitu, pentsatu eta ekin!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza s

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Inaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

# UEMAko gazteentzako topaketak Zumaiatik Lekeitiora izango dira aurten

UEMAk antolatutako udalekua ibiltaria izango da beste behin ere. Zumaiatik Lekeitiorako bidea osatuko dute ekainaren 29tik uztailaren 5era. Dagoeneko zabalik da izena emateko epea. “Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentibilizatzea, kontzientziatzea eta eragile aktibo bihurtzea da topeketen helburua”, UEMAtik aditzera eman dutenez.

Euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektua sortu zuen UEMAK duela lau urte, eta azken ikasturteetan UEMAKo herrietako ikastetxe guztietan aritu dira lanean UEMAKo teknikariak, Haur Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin. “Ikasleen artean hizkuntza ekologiararen diskurtsoa zabaltzea eta arnaguneen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren helburua”. Eta horrekin batera, “gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusaraztea”.

Proiektua are gehiago gartzeko, hezkuntza arautuaren mugak gainditu eta udalerrri euskaldunetako gazteentzako



Ekainaren 29tik uztailaren 5era, aisialdiaz eta euskal kulturarekin lotutako egitarauaz gozatzeko aukera izango dute Zumaiatik Lekeitiora bidean. Argazkia: uema.eus

## GAZTEENTZAT AUKERA

**“Ekainaren 29tik uztailaren 5era, aisialdiaz eta euskal kulturarekin lotutako egitarauaz gozatzeko aukera izango dute”**

topaketak eta udalekuak antolatu ditu UEMAK azken hiru

urteotan. Iaz, lehen aldiz, ibiltaria izan zen ekimena, eta 60 gaztek hartu zuten parte. “Euskaraz bizi diren gazteek inertziatik kontzientziarako salto ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da helburua, euskararen lurgunea hedatzen jarraitzeko”.

## Zumaiatik Lekeitiora

Ekainaren 29tik uztailaren 5era, aisialdiaz eta euskal kul-

turarekin lotutako egitarauaz gozatzeko aukera izango dute Zumaiatik Lekeitiora bidean.

## Izen-ematea zabalik da

Bi modutara eman daiteke izena: uema.eus web orrialdetik edota 943 816 699 telefono zenbakira deituta.

Informazio gehiago jasotzeko, hauxe duzue UEMAKoen helbide elektronikoa: [hezakuntza@uema.eus](mailto:hezakuntza@uema.eus)

## Errigorako produktuak eskatzeko epea martxoaren 12an amaituko da

Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktuak urte osorako izateko helburuz datorkigu bueltan Errigoraren udaberri parteko “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpainaren edizio berria.

Esku bete produktarekin gainera: oliba-olio birjina es- tra ekologikoa eta konben-

tzionala (5 litroko bidoiak); kontserba ekologikoak nahiz konbentzionalak (zainzuriak, pikillo piperrak, orburuak, barazki-menestra, tomate frijitua, arroza, potxak eta kremak. 12 ontziko sortetan eskuragarri), eta pasta ekologikoa (“stock” mugatua, eskaerak [errigora.eus](http://errigora.eus) bidez soilik). Guztia, “euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jato-

rrizko prezioan”. Gogoan izan, produktuok salduz jasotako laguntzaren zati bat Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzera bideratuko da.

## Ordainketak NOAUA!n egin behar dira

Produktu guztiok otsailaren 27tik martxoaren 12ra eskatu ahaliko dituzue NOAUA! bi-

dez edota online [errigora.eus](http://errigora.eus) atarian sartuta. Bi txandatan jasoko duzue: oliba-olioa apirilean; kontserbak, arroza eta pasta maiatzean. Ordainketak produktuok NOAUA!ra heldu eta jasotzerakoan egin behar-ko dira.

Informazio gehiago, [errigora.eus](http://errigora.eus) atarian. Eskuorriak eta xehetasun gehiago NOAUA! K.E.-ren goituzan.



## 60 herritar atera ziren Lilatoian

**L**atza gaurko eguna, zorianak eta eskerrik asko! Hitzokoin laburtu zuen antolakuntzak aurreko igandean Donostian ospaturiko 31. Lilatoian bizi izan zutena. Ia 5.600 emakumeek parte hartu zuten berdintasunaren aldeko lasterketan. Tartean, Usurbil eta Zubietako ia 60 emakumeek. Hemen duzue etxeko saillkapenaren berri.

### 31. Lilatoia

#### Usurbil

Igone Goikoetxea Balda 0:25:47  
 Marimar Uribe Navarro 0:27:57  
 Kizkitza Esnaola Maudes 0:29:42  
 Iratxe Begiristain Otegi 0:30:55  
 Itziar Dorransoro Ariz 0:30:55  
 Maider Izagirre Sarasola 0:30:55  
 Maddi Altuna Aizpurua 0:31:25  
 Ainara Aizpurua Lertxundi 0:31:25  
 Yolanda Arrieta Malaxetxebarria 0:31:37  
 Oihana Delso Aizpurua 0:31:39  
 Carola Giraudo Olaviaga 0:32:27  
 Idoia Amas Etxarri 0:32:30  
 Noelia Pérez Alcalá 0:32:53  
 Miren Azkonobieta Mitxelena 0:33:11  
 Malen Lanz García de Eulate 0:33:12  
 Naiara Fernandez Perez 0:33:21  
 Izaro Aizpurua Labaka 0:33:22  
 Garbiñe Zubimendi Lazkano 0:33:28  
 Joana Lertxundi Beristain 0:33:28  
 Ane Aburruza Ucar 0:33:28  
 Itziar Irazusta Larrea 0:33:29  
 Garazi Torrealdei Gorriti 0:33:29  
 Beatriz Irasuegi Salsamendi 0:33:56  
 Luisa Rodriguez Moreno 0:33:56  
 Marimar Estella Arranz 0:34:17



Ia 5.600 emakumeek parte hartu zuten berdintasunaren aldeko lasterketan, tartean usurbildar hauek. Argazkia: [facebook.com/lara.montesguerra](https://www.facebook.com/lara.montesguerra)

Udane Makazaga Estella 0:34:17  
 Miren Josune Estella Arranz 0:34:17  
 Eider Makazaga Estella 0:34:18  
 Elisabeth Sernandes Marcos 0:34:44  
 Arantxa Usarralde Aranzadi 0:34:54  
 Elixabete Udabe Pagola 0:34:54  
 Uxue Fernandez Lasa 0:35:12  
 Olatz Lazkano Portu 0:35:28  
 Leyre Barreña Goikoetxea 0:35:29  
 Aloña Bengoetxea Mendizabal 0:36:31  
 Maier Tapia Alkorta 0:37:10  
 Larraitz Matxain Odrizola 0:37:10  
 Amaia Murugarren Merino 0:37:51  
 Amaia Muñoz Solla 0:37:51  
 Lurdes Salaberria Garmendia 0:38:00  
 Maria Peñagarikano Lizaso 0:38:21  
 Pilar Gimeno Ardanaz 0:39:12  
 Kris Rodriguez Remigio 0:39:59  
 Irati Arruti Mendizabal 0:40:06  
 Haira Rivero Arrieta 0:40:07  
 Irati Lasarte Agirre 0:41:25  
 Leire Lizarralde Aguirrezabal 0:42:35  
 Isabel Amo Arias 0:44:00

#### Zubietta

Edurne Santesteban 0:31:07  
 Maite Santesteban 0:31:29  
 Marimar Vergara Miura 0:31:29  
 Irene Illarramendi Unanue 0:36:47  
 Izaskun Goikoetxea Labaka 0:36:47  
 Maddi Sarobe Aldalur 0:39:55  
 Maider Izagirre Txoperena 0:39:56  
 Alazne Olaizola Iparragirre 0:39:57  
 Josune Iparragirre 0:46:12  
 Olatz Zuloaga Segurola 0:46:12

#### Oharra:

Zerrendan aipatu ditugun parte hartzaileen izenak, 31. Lilatoiko saillkapen orokorrean Usurbil, Zubietta eta Aginaga hitzak sartuta bistaratu zaizkigunak dira.

Saillkapen osoa, [lilatona.es](http://lilatona.es) atarian duzue ikusgai.

### Eskubaloitardak Oiaro kiroldegian

#### Eskola Kirola

##### Martxoak 7, larunbata

■ 9:30 Alebin mutilak:  
 Udarrégi 6B-Udarrégi 5A  
 ■ 9:30 Alebin mutilak:  
 Udarrégi 5B-Udarrégi 6A  
 ■ 11:00 Infantil mutilak,  
 Diputazio Torneoa:  
 -Udarrégi A Usurbil  
 -Ereintza Beissier  
 ■ 12:30 Infantil neskek,  
 2. fase finala:  
 -Udarrégi B Usurbil  
 -Irauli Eskubaloia Bat

#### Usurbil K.E.

##### Martxoak 7, larunbata

■ 16:45 Kadete neskek,  
 Diputazio Torneoa:  
 Usurbil K.E.-Aiala B ZKE  
 ■ 18:30 Senior neskek,  
 Euskadiko Txapelketa:  
 Usurbil K.E.-CB Jarrilleras

### Futbol partidak Haranen

##### Martxoak 7, larunbata

■ 9:30 Alebin neskek:  
 Udarrégi 6B-Urnieta 5  
 ■ 10:45 Infantil mutilak:  
 Usurbil A-Billabona  
 ■ 12:30 Kadete mutilak:  
 Usurbil F.T.-Euskalduna SD B  
 ■ 16:00 Jubenilak:  
 Usurbil F.T.-Ostadar SKT A

## Laboral Kutxa Emakume Master Cup, finalerdietan

Final laurdenetako kanporaketak aurreko larunbatean jokatu ziren Getarian. Pilota goxotik mistorako jauzia ematera auzartu diren Olatz Arrizabalagak eta Gentzane Aldaik oso maila polita eman zuten eta 18-7 irabazi zieten Miriam Arrillaga eta Ainhoa Romerori. Gentzane Aldaik oso ondo eu-

tsi zion Miriam Arrillagari.

#### Finalerdiak, Beasainen

Hauek izango dira datorren igandean Beasainen lehiatuko diren bikoteak:

Olatz Arrizabalaga-Gentzane Aldai  
 Arrate Bergara-Amaia Aldai

Miren Larrarte-Olatz Ruiz  
 Leire Garai-Nora Mendizabal



Miriam Arrillaga eta Ainhoa Romero ez dira finalerdietan izango.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Agnagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

**Alokairuan**

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

**MOTORRA**

**Salmenta, garajeak**

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueterako kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetera, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-

naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. T602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. T617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezke. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila na-

bil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 **Betza**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburueterako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo lanaldi osoz aritzeko. 633148710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345



**Zorionak Nahia!**

Ederki ospatuko dugu zure 9. urtebetetzea! Muxu pila!



**Zorionak Maitia!**

3 muxu pottolo etxekoen partez, asko maite zaitugu, bihurri!!

**Zorionak Jon eta Iera!!**

Martxoaren 7an eta 11n zuen urtebetetze egunak izango dituzue. Ondo ondo pasa eta muxu handi handi bat bakoitzarentzat, familia guztiaren partez.



**Zorionak Aina!**

Martxoaren 2an 6 urte bete dituzu. Muxu haundi bat etxekoen partez!



**Zorionak Luken Pierre!**

Martxoaren 6an 3 urte!!! Muxu asko etxekoen partez.

**Zorionak Ima, Oihan, Intza eta Koko!**

Martxoaren 11-12an zuen eguna! Muxu potoloak familiyan partez.





Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil

arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest.

Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarik pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

#### BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

|                                   |             |                                 |                   |
|-----------------------------------|-------------|---------------------------------|-------------------|
| Udala.....                        | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea.....     | 943 376 650       |
| Atez ateko bulegoa.....           | 900 776 776 | Taxia (Angel).....              | 607 928 770       |
| Udaltzaingoa.....                 | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza)..... | 677 373 466       |
| Udal zerbitzuak (Brigada).....    | 943 370 148 | Eusko Tren.....                 | 943 470 976       |
| Sexu Aholkularitza Gunea.....     | 697 919 516 | LurraldeBus.....                | 943 000 117       |
| Gizarte Zerbitzuak.....           | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua.....  | 943 362 894       |
| Diputazioa - Basetxea.....        | 943 361 215 | Anbulategia.....                | 943 362 013       |
| Bake Epaitegia.....               | 943 372 336 | Amenabar botika (lehen Oa)..... | 943 376 076       |
| Udarregi Ikastola.....            | 943 361 216 | Iturralde botika.....           | 943 363 395       |
| Haur Eskola.....                  | 943 374 061 | DYA.....                        | 943 464 622       |
| Zubietako Lanbide Eskola.....     | 943 364 600 | Gurutze Gorria.....             | 943 272 222       |
| Zubietako Herri Batzarra.....     | 943 372 077 | Emergentziak.....               | 112               |
| Hastapen tailerrak.....           | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta ..    | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea.....                      | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea.....       | 943 362 163       |
| Oiardo Kirolegia.....             | 943 372 498 | Kutxabank.....                  | 943 361 202       |
| Sutegi Udal Liburutegia.....      | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala .....  | 943 364 740       |
| Zumarte Musika Eskola.....        | 943 371 594 | Banco SabadellGuipuzcoano.....  | 943 370 006       |
| Etumeta AEK euskaltegia.....      | 607 609 379 | Banco Popular Español.....      | 943 370 411       |
| Kalezar Eguneako Zentroa.....     | 943 365 249 | BBVA.....                       | 943 377 155       |
| Gure Pakea Zahar Egoitza.....     | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa.....           | 943 368 842       |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza.....  | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola.....     | 901 202 020       |
| Arrate Zahar Egoitza.....         | 692 898 492 | Gas naturala - Naturgas.....    | 902 123 456       |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia..... | 943 361 239 | Telefonica.....                 | 1004              |
| Noaua! Kultur Elkartea.....       | 943 360 321 | Euskaltel.....                  | 900 840 840       |

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 05** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 06** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 08** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 09** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 10** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 11** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Martxoak 05 - Martxoak 15

**Osteguna 12** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 13** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 14** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxo

## 06 ostirala

- "Dantzipuinak" 18:30etan Sutegin.
- Erakusketa Santueneko Gure Elkarte, Maria Jesus Etxeberriaren argazkiak.
- Erakusketa Artzabalen, Lurdes Huetaren argazkiak.

## 07 larunbata

- Sagarrondotik Sagardora ikastaroa. 9:00-13:00, Potxoenean.
- Erakusketa Santueneko Gure Elkarte, Maria Jesus Etxeberriaren argazkiak.
- Erakusketa Artzabalen, Lurdes Huetaren argazkiak.

## 08 igandea

- Martxoak 8 egunari lotutako ekitaldi ugari. Ikus 13. orrialdea.
- Erakusketa Santueneko Gure Elkarte, Maria Jesus Etxeberriaren argazkiak.
- Erakusketa Artzabalen, Lurdes Huetaren argazkiak.

## Sagastien neguko kimaketari buruzko hitzaldia

A lkartasuna Kooperatibak, Sagarik, Bizi Sagardoak eta Usurbilgo Udalak antolatuta asteotan hasi eta urrira arte martxan izango den ikastaro praktikoko martxoko saioetan aldaketak iragarri dituzte. Hona hemen datorren hilabeterako hitzorduen agenda eguneratua:

- Martxoak 7: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak". Aitor Etxeandiaren eskutik.
- Martxoak 14: "Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa", Josu Osaren eskutik.



Aitor Etxeandia Potxoenean izango da larunbat honetan, goizeko 9:00etatik 13:00era.

Izen ematea: 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus

## "Dantzipuinak" Sutegin

Emakumeen inguruko ipuin eta dantzak elkartuaz sortu da Dantzipuinak. "Bertan ipuinak entzun eta dantza zuzenean eskaintzen da. Dantza, ipuina. Ipuina, dantza. Dantzipuinaz gozatzeko aukera izango dugu".

### Martxoak 6 ostirala

- 18:30ean Sutegin.
- Dantzaria: Jaione Albeniz (Sebastopol dantza eskola).
- Kontalaria: Ixabel Agirresarobe.



Ixabel Agirresarobek egingo ditu kontalari lanak.

- Iraupena: 50 minutu.
- Antolatzaileak: Udaleko Parekidetasun Saila eta Sutegi udal liburutegia.

### Datozenak



### Martxoaren 11n, "Jenisjoplin" Sutegiko irakurketa-solasaldian

Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberria ikuspegi feminista batetik aztertuko dute martxoaren 11n Sutegin. Kattalin Miner idazle eta kazetariak gidatuko du solasaldia. Ohar hau zabaldu du udal liburutegiak: "*Jenisjoplin* liburutegian eskuratu ahal izango duzu; izan ere, liburua alde zuzenetik irakurri gero, etekin handiagoa aterako diozu topaketari. Anima zaitetz parte hartze-ral!". Antolatzailea: Udaleko Parekidetasun Saila eta Sutegi udal liburutegia.

### Argazki erakusketa Santuenean

Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa martxoaren 29ra arte ikusgai izango da Santueneko Gure Elkarte jubilatuen tabernan.

Egunero, 9:30-22:00 artean, astearteetan izan ezik, itxita egongo baita.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

### IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi  
berria 2020, primerako  
sagardoekin

943.361.229



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!

ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea



# Herri-kirolak

## Urbilen



Mar-  
txoak 7  
18:30

**Inaxio Perurena**  
harrijasotzailea

**Aitzol Atutxa**  
aizkolaria

**Jon Irazu**  
aizkolaria

**Julen Alonso eta  
Eneritz Aulestia**  
trikitolariak

**Jose Angel  
Sarasola**  
esataria

Kupela **Saizar  
Sagardotegia**



Elkargunean

